

elkarrizketa



Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, Euskal Herriaren historia gordean murgil egin eta bere azken eleberriri buruz mintzo zaigu, joan zen mendeko gertakarian gogoan, gure herriaren historia berridazteko ahaleginean.

Txillardegi

«Karlismoaren mapa eta euskararena gauza bera ziren»

Garikoitz BERAALUZE

Herria da gorputza, hizkuntza bihotza, Xalbadorrek bezala, ederki daki hori Txillardegi ere. Herriaren eta euskararen aldeko lanean eman baitu bizitza. Herriaren alde, besteak beste, Ekin eta ETaren sortzaileetakoa izan zen. Euskararen alde, herriaz, hizkuntzari buruzko liburu eta artikulu ugariaren egilea eta, literaturan, arastoa utzi duten zenbait eleberriren aita. Orain, hamaika urteren buruan, eleberrri berri batekin datorrigu. Bizirik dagoen klasiko baten itzulerara da "Putzu".

Euskal literatura modernoaren aitzindaritzat jotzen da Txillardegiaren Leturiaren egunkari ezkutu (1957). "Peru Leartzako" (1960), "Elsa Scheelen" (1969) eta "Haitzeaz bestaldetik" (1979) ere arastoa utzi zuten. "Etxitu" (1988) belaualdi oso baten eleberrri gus-tukoenetakoa izan zen. Orain, ia 400 orrialdeko lan mardulean, Txillardegi 1873. urtera garamatza. Sutan da Euskal Herria, askatasuna eta geroa jokatzeko baitira Bigarren Karlistadan.

Nafarroari eskaini diozu nobela, «behin eta berriaz, eta hamaika bider, kanpoko arrotzek eta bertako estelek, inkantean saldutako euskal aberri miregarriari».

Bai. Karlistada ardatz duen eleberrri batean ezinbestekoa zen. Carlos VII.aren etxea Lizarrako plaza zegoen. Ez dut nik asmatu. Lizarra gotorlekua zen. Mendiaz bestaldera hasten dira ika-mikak. Baina Lizarra gotorlekua zen.

Hamaika urte dira azken eleberrian argitaratu zenuela. Geroztik lan honekin aritu al zara?

Asmoa aspaldi nuen, baina azken bultzada iaz eman nion. Abertzaleontzat oso garai gogorak izan dira eta, niretzako, hau, benetan, babeslekua izan da. Osasungarria ere izan zait, psikologikoki mendeku txikia. Eleberrian sartu eta gure historia guk kontatzeko ahalegina.

Bigarren Karlistadan 40.000 euskaldun armak hartuta ibili ziren



KARLIS CORBELLA

mendian. Euskal Herriak ez du sekula halako matxinadarik ezagutu. Hala ere, ia ez dago hura karlisten ikuspegiatik kontatzen duen dokumenturik.

Nire ustez beti gertatzen da hori. Gerra irabazleek kontatzen dute. Dokumentazio ugari dago karlistaden inguruan, baina guk idatzitakoa aurkiezina da ia. Karlistek beraien idatzi dutenean ere, oso espainolastak izan dira oro har.

Eleberrri historikoa da. Zer dela eta ankeratu duzu Bigarren Karlistada?

Karlistoa Euskal Herriaren aienazio politiko guztien eredu da,

paradigma. Ez da egia hemen karlistoaren alde zeudenak eskuindarrak zirela. Egia da, baina ez osoa. Karlismoa oso sakona izan zen, familia guztietan kontatu dute garai hartako hainbat anekdota.

Ez al zaitu iruditzen etena egon dela? Gaurko gazteek ahaztu egin dute karlistoa, prehistoria iruditzen zaie. Bestalde, norbaitek berriki idatzi du harritu egiten dela ezker abertzaleak ez duelako XIX. mendeko karlistoa aldarrikatzen. Areago, karlistak eskuinaren lotzen dira. Ados nago. Lan hau, finean, hori

da: Bigarren Karlistadaz aportazio bat Euskal Herriaren ikuspegiatik. Horregatik, liburua egiteko gauza asko irakurri dut. Liburuak, bertsoarietan lanak eta gauza pila bat araka daiteke gaiaren inguruan.

Protagonistak, Putzuk, benetako mamia du ala zure irudimenetik aterata da?

Nik, besterik gabe, lekuko bat jarri dut, donostiarra. Donostiak eta Euskal Herriak ezagutu zuen krisiaren lekukoa. Industria, euskararen galera... krisia orokorra zen.

Txillardegi zer nabarmendu nahi du lan honekin?

Karlistada, nahiz eta mugimendu alineatua izan, guztiz mugimendu herrikoa zela nabarmendu nahi izan dut. Apaizek zenikusi handia izan zuten, noski. Jauntxoak eta jende aberatsa ere aritu ziren, baina herria ia-ia osoki sartu zen karlistoan. Markek berak esan zuen Euskal Herria mugimendu karlista mugimendu herrikoa zela. Askotan gauzak sinplifikatu egiten dira eskuineko mugimendua zela esanez, baina horrela ez dago hainbat elementu ulertzen. Orain Lizarra-Garaziko akordioa eskuindarra dela esatea bezala da. Ez, Lizarra-Garazi akordio nazionala da. Argi eta garbi.

Garai hartan ere horrelako zerbitu gertatzen zen. Lizarrako plazan, Carlos VII.aren etxean guardia egiten zen. Zainketa Gipuzkoak, Bizkaiak, Arabak eta Nafarroak egiten zuten, laurek, txanaka. Laurak bat, orduan, oso indartsua zen. Euskari ere ez zegoen hain urrutit. Zumalakarregi Museoa karlisten mendeko zonaldeen mapa bat dago. Mapa hori Bonaparteren mapa da, euskalkiena. Euskararen mapa eta karlistoaren mapa bat dagoz. Nola azaldu, ez dakit. Baina, finean, hori izan da nire asmoa, euskal karlistoaren atzean herri oso bat zegoela agertzea. Egia da mapa hori ez dela mugimendu politiko kontziente batean sartzen, inkontzientea da. Nafarroa gauza bera gertatzen da oraindik ere NATOri emancakio ezetzarekin, intsumisioarekin eta abar.

Badira 42 urte Leturiaren egunkari ezkutu argitaratu zenuela. Orduanik asko aldatu da euskal literatura. Jarraitzen al duzu egun idazten dena?

Debiatuki aitortu behar dut ez dudala erabat segitzen. Gure garaiari oso erraza zen, lau katu ginelako. Egun sorkuntza oparora da eta ez naiz auzartzen iritzi bat ematera. Hainbat liburu irakurtzen dut, baina ezin ditut guztiak irakurri. Zalarrik gabe, asko aurreratu da euskal literatura, tematika, estilo eta beste hainbat kontutan. Hala ere, oraindik ez dugu izan euskal literaturan Barojaren neurriko inor.